



SEKTOREAK	ZER EGIN DUGUN	INBERTITUTAKOA
Larrialdia Laguntza humanitarioa	- Berehalako erantzuna lurrikara izan eta gero: elikagaiak eta ura banatu ziren, eta babesa eman, laguntza medikoa.. - Babes logistikoa Dominikar Errepublikatik, larrialdiko esku-hartzea egin eta kaltetuei laguntzeko. - Laguntza humanitarioa eta berreskuratze azkarra lurrikarak eragindako biktimentzat. - Tomas urakanari erantzun zitzaion, Haiti guztiz suntsituta utzi zuena lurrikara gertatu eta hilabete gutxira.	5.031.390 €
Etxebizitza	- Urakanei aurre egiteko moduko 100 etxe berreraiki dira, lurrikarak suntsitutako guneeetan. - Lurrikaren eta urakanen aurkako 130 etxebizitza berreraiki dira herrialdeko elizbarruti guztietan.	1.196. 517 €
Hezkuntza	- Lau ikastetxe publiko eraiki/egokitu dira. Haietan, ia 1.400 ikaslek jasotzen dute hezkuntza. - Lanbide Heziketako Plana 2011-2015 Aita Salestarrekin. Planaren baitan, LHko zentroak egitea aurreikusten da. - Muturreko arriskuan dauden pertsonentzako (haurrak, familiak eta adinekoak) jangela-zerbitzua Puerto Príncipen. - Aroztegi/eskola bat eraiki da gazteentzat, eta okindegi bat ere bai, diru-iturri gisa (irakasleei soldata ordaintzeko).	3.261.229 €
Osasuna	- Aldian behin sortzen diren kolera-izurriteei erantzun zaie, sendatze- eta prebenitze-ekintzak eginez. - Edateko ura lortzea eta banatzea Hinchén. - Mugako Plan Binazionala uraren saneamendu-egiturak eraikitzeko eta mantentzeko. Horrek Haitiko eta Dominikar Errepublikako 65.000 laguni eragingo die. - Adinekoiei laguntzeko eta haiek hartzeko zentroak. Haietan, jatekoa ematen zaie, bai eta laguntza medikoa ere.	3.922.982 €
Erakundea indartzea	- Haitiko Caritasen egitura mailako Plan estrategikoa egiten eta aztertzen parte hartu dugu, eta jasangarritasuna progresiboki txertatzen lagundu dugu. - Haitiko Gotzain Konferentziak sustatzen duen plataforma bat finantzatu dugu, herrialde mailako dialogoa bultzatzeko. Dialogo horretan, herrialdeko elizbarrutiek hartzen dute parte, bai eta beste eragile politiko, ekonomiko, erlijioso eta sindikalista batzuek ere.	326.090 €
Guztira		13.738.118 €

Haitiko errealitatea 2013an

- Haitik 9.800.000 biztanle ditu, eta %80 baino gehiago pobreziaren atalasetik behera bizi da; pobrezia hori muturrekoa da kasuen %54an.
- Biztanleen %80k ez du edateko ura lortzeko biderik eta hurren %22k desnutrizio kronikoa daukate.
- Gutxienez 300.000 lagun desplazatu esparruetan bizi dira (horrelako 385 daude oraindik ere Haitin), bizitzeko toki egoki baten zain.
- Osasunaren Erakunde Panamerikarrak ohartarazi du Haitiko egungo bizi-baldintzak direla eta, urtetan luza daitekeela kolera-izurritea, eta milaka eta milaka lagun hil daitezkeela kolerearen ondorioz.
- Helduen analfabetismo-indizea %38koa da, eta oso jende gutxi du lan formal bat, kontratu bidez araututako soldata batekin.
- Lurrikarak bota egin zituen ikastetxe publiko gehienak, eta ikastetxe pribatuak %85 elite txiki eta pribilegiatu baten esku baino ez daude.



© Eva Rubio - Toledoko Caritas



© Connor O'Loughlin - Caritas



© Eva Rubio - Toledoko Caritas



© Natalia Peiro - Espainiako Caritas



Espainiako Caritasek
Haitin jarraituko du,
lurrikararen ondoren
abiatutako lankidetzak-
lerroak lantzen



© Haitiko Caritas

Historia pikka bat

Haiti! guztiz suntsitu zuen lurrikara batek 2010eko urtarrilaren 12an, 300.000 lagun hil ziren, milioi bat eta erdi pertsonak beren etxeak galdu zituzten, eta bi milioi lagun- nek desplazatu en esparruetara joan behar izan zuten aldi baterako, edo uharteko leku seguruagoetara.

Baina Haiti Latinoamerikako herrialde pobreena zen lurrika- raren aurretik ere, Estatua guztiz ahulduta baitzegoen eta bizirapeneko ekonomia baitzuen. Elikadura-krisiak ugariak ziren, eta deforestazio-maila handia zuen. Beraz, muturreko fenomeno naturalen aurrean ere ahulagoa zen.

Eraikinen kalitate eskasaren ondorioz izandako honda- mendiaz gain, 2013ko urtarrila bitarte ia 8.000 lagun hil ditu kolera- eta higie-ne-baldintza txarrak direla eta. Izan ere, kolera uraren kutsaduraren ondorio da, eta oso-oso erraz transmititzen da.

Hurrengo urteetan, eta herrialdea berreraikitze-prozesu eta kalte handiak ere abian ziren nekazaritza-, hezkuntza- eta osasun-azpiegiturretan.

Zer egin duen Caritas-ek

© Eva Rubio -
Toledo-ko Caritas

Beti! lanarenzat. izan da Haiti, baita lurrikararen aurretik ere, lehenetasuna Caritasen lankidetzan

Larrialdietarako Berehalako Esku Hartze Planaren ondo- ren (laguntza humanitarioa eman, edateko ura banatu, aldi baterako bizilekuak...), Espainiako Caritas-ek batez ere osasunaren, hezkuntzaren eta etxebizitza- ren arloetan eta erakundea indartzen eta gizarte-talde ahulenei laguntzen jardun du; hotz, desgaituei, adin txikikoek, emakumeek, arritasen nazioarteko sarearekin lankidetzan egin du, eta Haitiko Caritasen eta bertan lanean hogeit urte baino gehiago darama matzen tokiko Elizaren zerbitzura.

2013ko urtarrila bitarte, ia 14 milioi euro jarri ditugu Haitiko larrialdietarako eta berreraikitze-lanetarako, eta zenbateko hori gero eta handiagoa da, beharrei erantzun behar zaien heinean.

Espainiako Eliza Katolikoaren karitate- eta gizarte-ekin-tzako erakundeen konfederazio ofiziala da Espainiako Caritas, eta elizbarrutietako 68 Caritas-ek eta parrokie- tako 6.000 Caritas-ek osatzen dute. Pertsonen eta herrien garapen integrala sustatzea du bere egiteko nagusia, batez ere pobreena eta bazterketa-egoera larrian bizi direnena. Bere nortasun-ikur nagusietako bat 64.000 boluntarioen konpromisoa da, dute onena emanez justizia sozialaren eta giza duintasunaren alde lan egiten baitute; bai eta Caritasi diru-ekarpenak egiten dizkieten beste hainbat lagunena ere, haien laguntzarik gabeko ez baitzitezke lan izugarri hau posible izango.

Haitirekin lanean jarraitzen dugu


2010eko lurrikararen ondorio latzak oso agerikoak dira gaur egun. Desplaza- tuen esparruetan bizi dira, oraindik ere, 300.000 lagun baino gehiago, beste askok aldi baterako hala-moduzko bizilekuak egin dituzte lehen haien etxea zegoen lekuan, baina oso-oso egoera txarrean egon ohi dira. Hori dela eta, Caritas sarearen erronka handiena aldi baterako eta behin betiko etxebizitza egokiak lortzea da.

Ezinbestekoa da anaitasunean oinarritutako lankidetzarekin jarraitzea; Elizaren egitekoa, Haitin, herrialdeari pobreziatik eta bazterketatik irteten laguntzea da, Caritasen eta beste erlijio-erakunde batzuen bidez.

2012an abiatutako lankidetz-lerroak lantzen jarraituko du Espainiako Caritas-ek 2013ko planean ere: kolerearen aurka- ko proiektuaren bigarren faseari ekin, etxebizitzak eraiki herrialde osoan, uraren saneamendu- egiturak egin Dominikar Errepublikako mugan, eta gazteentzako Lanbide Heziketako Plana garatu, besteak beste.

Hasieratik izan genuen jendearen laguntza handia, uste osoa izan baitzuten beti Caritasengan. Haiti berreraikitzeko lanetan laguntzen jarraituko dugu, beraz, bertako Caritas-ekin eta haitiarrekin batera, borondate eta sendotasun handiz lan egin baitute eta egiten jarraitzen baitute beren herrial- dea berreraikitzen eta pobrezia eta bazterketa murrizten.

© Martín Lago – Espainiako Caritas



© Martín Lago – Espainiako Caritas

HAITI

Oraindik behar zaitu

HAITI